

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

#### 59/2025 Foru Agindua, otsailaren 6koa. Bitarteko izendapena egitea Mikel Prieto Martínez de Musituri, Erriberagoitiko Udaleko idazkari kontuhartzaile lanpostua betetzeko

2025eko otsailaren 3an, Erriberagoitiko Udaleko alkateak Mikel Prieto Martínez de Musituri bitarteko izendapena egiteko eskatu zuen, Erriberagoitiko Udaleko idazkari kontuhartzaile lanposturako, 2025eko otsailaren 6tik aurrerako ondorioekin.

Lanpostua hutsik dago gaur egun, eta 2024ko abenduaren 13ko ALHAOn (141. zenbakia.) argitaratutako lehiaketa bateratuan sartu da.

Espedientean jasotzen denez, 2024ko apirilaren 3ko ALHAOn (38. zenbakia.) iragarki bat argitaratu zen, lanpostu hori estaturako gaikuntza duen funtzionario batek behin-behineko izendapenaren, zerbitzu eginkizunen edo metaketaren bidez betetzeari buruzkoa, baina ez zen eskaerarik aurkeztu epe barruan, ez eta gaur arte ere. Ondoren, idazkari lanak egin dituen funtzionarioa izendatu zen aldi baterako, bitarteko funtzionario lanpostua betetzeko espedientea izapidetzen zen bitartean. Funtzionario horrek bere borondatez uko egin dio bere behin-behineko izendapenari, 2025eko otsailaren 5etik aurrerako ondorioekin.

Berdintasun, merezimendu, gaitasun, publizitate eta azkartasun printzipioak betez hautaketa prozedura hori izapidetu eta balioespen epaimahaiaren proposamenari jarraituz lan poltsa eratuta, alkatearen 2025eko urtarrilaren 14ko ebazpen baten bidez onetsi zen. Horrela, bada, deialdia arautzen duten oinarriak betez, proposatu zen puntuazio ordenari jarraituta lehenengo hautagaia, Mikel Prieto Martínez de Musitu, izendatzea, 2025eko otsailaren 6ko ondorioekin. Hark izendapen proposamena onartu zuen, eta epe barruan aurkeztu zituen sartzeko baldintzak egiaztatzen dituzten jatorrizko agiriak, bai eta izendatu aurretik aurkeztu beharreko gainerako agiriak ere.

Bat etorri 128/2018 Errege Dekretuaren 53. artikulua xedatutakoarekin:

1. Ezinezkoa denean gordetako lanpostuak estaturako gaikuntza duen toki administrazio funtzionarioen bidez betetzea, eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginak 10.4 artikuluan xedatutakoa gorabehera, toki erakundeek autonomia erkidegoari proposatu ahal izango diote, betiere berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate irizpideak betez, bitarteko funtzionario bat izenda dezala, A1 azpitaldera sartzeko eskatutako tituluduna.

Edonola ere, kontuan izan behar da zer xedatzen duen Estaturako gaikuntza duten toki administrazio funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 54. artikuluan:

“Lanpostua behin betiko bete, titularra itzuli kapitulu honetan jasotako kasuetan, edo behin-behineko izendapena eginez gero, zerbitzu eginkizunetan edo zeregin pilaketan, lanpostua aldi baterako funtzionario edo bitarteko funtzionario batek betetzen badu, automatikoki kargugabetuko da lanpostu hori betetzen ari zena”

Bat etorri Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 10.4 artikuluan xedatutakoarekin, bitarteko funtzionarioaren izendapenetik hiru urte igarotakoan amaitu egingo da bitarteko harremana.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 53. artikuluan xedatutakoari jarraitu zaio.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian agindutakoa betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolaketari eta Araubide Juridikoari buruzko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Mikel Prieto Martínez de Musituren izendapena egitea, 2025eko otsailaren 6tik aurrerako ondorioekin, Erriberagoitiko Udaleko idazkari kontuhartzaile lanpostua bitarteko gisa betetzeko, lanpostua legez bete arte, Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Erriberagoitiko Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta hura ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Jakinarazten zaizun foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakezu zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erki-dearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 6a

*Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua*

**LAURA PÉREZ BORINAGA**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*

**JAVIER GORBEÑA GARCÍA**